

## → PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Ibaizabal ikastolako bigarren batxilergoko talde txiki bat gara, gizartean gaur egun dauden bi gabezi indartzeko proiektu bat proposatu dugu. Hau Startinnova proiektuak proposatutako erronkari aurre egiteko proiektua izango da. Aurretik aipatu bezala, gure proiektuak gizartean ditugun bi arazoei konponbidea emateko helburua du; herri txikietako dendei beraien arropa interneten bidez saltzeko aukera ematen dien proiektua.

Hauek dira guk aztertutako arazo gorenak:

Alde batetik, enpresa handiek duten influentzia. Tamalez, gaur egun denok denda handietan erosten dugu gure arropa eta herriko dendek ospea galdu dute. Izan ere, denda handietan erostea erosoagoa da, produktu gama handiagoa dugulako eta online bidez erosi dezakegulako, denbora aurreztuz. Beraz, horrek denda handietan gehiago erostera bultzatzen digu.

Ondorioz, komertzio txikiek ez dute nahikoa irabazten eta ixteko aukera baino ez dute. Horrela, herrietako dendak desagertu egiten dira, "pueblo fantasma"-k sortuz. Horrek herriko giroa eta mugimendua murrizten du.



Beste alde batetik, eskatutako arroparen garraioan dagoen kutsadura izango litzateke bigarren arazoa. Gure helburua, enpresa txikiei baliabide berri hau emoterakoan eta horri esker beraien salmentarako lortzen duten erraztasunaren bidez kutsadura murriztea da.

Esaterako, zure herriko dendaren baten eskaria egiterako kasuan, dendatik etxera banatzailea bizikletan joango litzateke, eta horrela kutsadura murriztu. Honetaz gain, eskaintzen dugun baliabidearen bidez bezeroek arropa "birtualki" beraien gorputzan frogatzeko aukera dutenez, itzulerak murrizteko aukera ona izango da. Beraz, garraio aldiak murriztuko dira, hauek eragiten duten kutsadura murriztuz.

Bukatzeko, gure proiektuaren bidez kutsadura murrizteko beste modu bat, denda handiei beharrean, gure proiektua denda txikiei eskaintzea da. Izan ere, denda txikiek eskuz edo inguru egokiagoetan produzitzen dituzte beraien produktuak. Horrez gain, pestizida gutxiago erabiltzen dituzte eta textil hobeagoak. Beraz, guzti honekin, ingurumena gutxiago kaltetuko dute beraien produkzioarekin, eta modu horretan kutsadura murriztu.

Honegatik guztiagatik, guk aldaketa bat beharrezkoa ikusten dugu. Horretarako software bat sortuko dugu. Hau maniki birtual bat izango da. Bakoitzak bere maniki propioa izango du, bere gorputzaren irudi birtual bat izango baita, norberaren neurri eta formak baliatuz. Honen eginkizuna, arropa internetetik erostean, gure "gorputzean" frogatzeko aukera ematea izango da.

Esandako guztia kontuan hartuta, baliabide hau herriko dendei proposatuko diegu, jende gehiagok bertan erosi dezan, aukera erosoagoa eta erakargarriagoa delako.